

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Lankidetza Kontseilua sortzeari eta honen funtzionamendu eta antolakuntza araudiari hasierako onespena ematea

Udalbatzak, 2016ko azaroaren 16an egindako bileran, Zigoitiko udalerriko Udalaren eta Kontzejuen Arteko Lankidetza Kontseilua sortzeari eta honen funtzionamendu eta antolakuntza araudiari hasierako onespena ematea erabaki du.

Iragarki hau jendaurrean jarriko da 30 egunez, ALHAO-n argitaratu osteko egunetik zenbatzen hasita, interesdunek espedientea aztertu ahal izateko eta egokituz jotzen dituzten erreklamazio edo oharrak idatziz aurkeztu ahal izateko.

Epe horretan ez bada erreklamaziorik aurkeztu, erabaki hau behin betiko erabaki bilakatuko da eta onetsitako Araudiaren testua osorik argitaratuko da.

Ondategin, 2016ko azaroaren 16an

Alkatea

MIKEL LAS HERAS MTZ. DE LAPERA